

Publizitatea



Astekaria

Larrun

Gakoak

Bizi
Baratzea

EN CA GL **elia**
elhuyar

Itzulpen automatikoa / Machine translation

SAGARDO DENBORALDIA

ANALISIA

Mozkorturismoa



Argazkia: Kronika.



Hasi da txotx denboraldia, eta herritarrek ilusioz ekin diote sagardotegietako upeletan ondutako uzta dastatzeari. Ezin huts egin urteroko errituari, euskal kultura bultzatzeko eta bizitzeko modu honi. Baina tradizio oro, nahi edo ez, aldatu egiten da, eta ohituraren funtsa lausotu egiten da maiz, *sidreroen* ikusmena tragoz trago lausotzen den bezala. Nola transmititu zaie belaunaldi berriei txotx denboraldia? Nola ulertzen dute egungo sagardozaileek –edo, besterik gabe, parrandazaleek– sagardotegiko zita?

“Urtarriletik apirilera, asteburuero, esperientzia honetaz gozatu nahi duten adin guztietako pertsonez betetzen dira herriko kaleak”. Hala deskribatzen du denboraldia Hernaniko Udalaren webguneak. Ordea, kaleak bete baino gehiago, azken urteetan kaleek gainezka egiten dute, eta badirudi Astigarraga eta Hernaniko espazio publikoak *sidreroentzat* erresebatuta daudela hamalau bat astez jarraian. Erraz esaten da: ia lau hilabete etengabeko festa erraldoian, mugarik nahi ez duen jende mozkorrez lepo.

Astigartar eta hernaniar askok ere festa nahi dute eta sagardoaren kultura gogoko dute, baina euren herrian hori egitea ukatzen zaie. “Larunbat arratsaldetan gure herrietako bizilagun asko euren bizitokitik kanporatuak sentitzen dira”, berretsi dute Astigarragako eta Hernaniko udal ordezkariak Hartu ardura kanpainaren aurkezpenean, eta ohartarazi dute “bizikidetza arazoak” sortzen dituela jendetzak. Txotx

denboraldia eskuetatik joan zaiela onartu dute bi udalek, eta 2024ko denboraldia hasi berritan egoera kudeatzen laguntzeko bilera bat eskatu diete Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari. Baina badu atzera bueltarik *gehiegikerien denboraldi* bilakatu den honek?

Begi-bistakoa da herriak ez daudela prest astero milaka turista sagardozale jasotzeko. Autobusak saldoka, oihuak eta zarata gau eta egun, pixa bazter – eta erdi– guztietan, sagardotegian neurritz jan eta edan ez duenaren oka plaza erdian, aparkatutako autoak apurtuta... eta larriena: era guztietako erasoak. *Sidreroz* betetako kale eta tabernak ez dira seguruak ez emakumeentzat, ez LGTB komunitateko pertsonentzat, ez pertsona arrazializatuentzat, ez gutxiengoen parte den inorentzat ere. *Ez da sagardoa, zu zara. Hartu ardura* kontzientziazio kanpainaren bitartez erasoak saihestu nahi dituzte udalek. Baina urteroko kartel eta iragarkiek eragina dute alkoholaren eta beste drogen aitzakian erasoak egiten dituztenengan?

Sagardotegien kultura harro bultzatu da urteetan, eta bertako turistak nahiz kanpokoak erakartzeko goxoki aparta izan da. Arazoa da ez dela neurririk hartu turismo hori jasangarri egiteko, halakorik posible bada. Orain, egoera erabat kontroletik kanpo dagoela, zaila da litroak edatera datozen *sidreroei* atzera eginaraztea. Nola mugatu herrirako jarduera ekonomiko garrantzitsua dena? Nork jarri behar ditu *mozkorturismoa* onbideratzeko tresnak?



=====

SAGARDO DENBORALDIA

HERNANI

ASTIGARRAGA

Publizitatea



IRAKURRIENAK

Matomo erabiliz

- #1** **Eta zuk zertarako darabilzu ikasgelako gurasoen whatsapp?**
Mikel Garcia
- #2** **Ekologiak hil du baserria**
Josebe Blanco Alvarez
- #3** **Ikusmenaren zati bat galduko du Ertzaintzak Tolosan zauritutako gazteak**
Olaia L. Garaialde
- #4** **2x06: Danele Sarriugarte | Porrota**
ARGIA
- #5** **Ertzaintza formateatu**
Begi bistan

Publizitatea



Azoka



Ilargiaren egutegia 2024
8,00€

Kanal honetatik interesatuko zaizu: Sagardo denboraldia



2023-02-07 | Leire Rodriguez
Garmendia

"Ez da sagardoa, zu zara" kanpaina jarri du abian Hernanik, eraso matxista eta arrazisten aurka

Herriko zenbait eragilerekin batera, "ez da sagardoa, zu zara" lelopean aurkeztu du kanpaina asteartean Hernaniko Udalak.



2023-01-11 | ARGIA

Abian da txotx denboraldia

"Inflazio eta igoeren gainetik ilusioa eta pasioa elkartuta" aurkeztu du Euskal Sagardoak txotx denboraldia. Sektoreak "pozik" hasiko du sagardotegi garaia, bi urteren ondoren txotxetik dastatu ahal izango delako sagardo berria.



2021-01-20 | Usurbilgo Noaua

Sagardoa txotxetik mahaira, otsailean

hasiko den denboraldi berrian

Urte garai honetarako
dagoeneko sagardotegiek
zaletuez gainezka behar zuten
honez gero. Ilara luzeak edari
berria dastatzeko irrikan.
Jendetza mahaien bueltan,
kupeletan. Pandemian gaude
ordea eta halako irudirik ez da
errepikatuko aurtengoan. Txotx
denboraldi berria izan
izango... [\[+\]](#)



2018-01-22 | Ainhoa Azurmendi
Echegaray

Sagardo denboraldiaren irekiera

Hernaniarra naiz. Sagardozalea.
Eskubaloira jokatu dudan hoge
urteetan ezagutu ditudan
emakume gehienek, nazioarte
mailan jokatutako kirolari
handiak barne, nik bezain beste
gozatzen zuten sagardotegian
garaipenak ospatzen
genituenean, edo talde
sentimendua kupel artean... [\[+\]](#)



2018-01-11 | Urumeako Kronika

Zaporeak proiektuak irekiko du larunbatean, Hernaniko txotx denboraldi berria

Eguerdiko 13:00etan emango
dio hasiera, proiektu solidarioak,
2018ko sagardotegi garaiari.
Aurretik, trikitilariak eta Kalez
Kale Kantariko kideak ibiliko dira
herriko kaleetan, eta kirikoketa
erakustaldia egingo dute Plazan.
Irekieraren ondoren, bazkaria
egingo dute Goiko... [\[+\]](#)



CC BY-SA

Edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu
eta argitara
ditzakezu, egiletza
aitortu eta baldintza
beretan eginez
gero. Lizentzia hau
baliagarria da
testuentzat eta,
argazkien eta
ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura
daramatenentzat
soilik.

KIDE SAREKO



Ekoedizioaren
Institutuko bazkide

JARRAITU



LAGUNTZAILEAK



ARRASTEN UROLA



KONTAKTUA | EGILEAK | PUBLIZITATEA | RSS JARIOAK |
PRIBATUTASUN POLITIKA | WHAT IS ARGIA?